

# noaua



## "GIPUZKOAKO KOPAKO HIRUGARREN JARDUNALDIA IGANDE HONETAN JOKATUKO DA USURBILGO BOLATOKIAN"


Mikel Arroio herrialdeko bolari onenetako bat da / 22-23

ARGAZKIA: NOAUA




NOAUA

**Eusko Legebiltzarra aukeratzeko bozetan parte hartzea %63,64koa izan zen / 06**



USURBILGO LANBIDE ESKOLA

**Ibai Agirresarobe bigarren sailkatu zen Skills trebetasun txapelketan / 08**



NOAUA

**Zirriborrok osatu du Dantza Eguneko 'Borobil' emanaldiko atrezzoak / 12**



NOAUA

**"Usurbil, goazen kalera" ekimena martxan da berriro ere / 26**



## NOAUA!k publizitate arduraduna behar du

### *Eskatzen dena:*

- Kazetaritza, publizitate, ikus-entzunezko komunikazio edo marketin arloko ikasketak.
- Diseinu lanak egiteko ahalmena: InDesign, Adobe Photoshop, Canva...
  - Harremanetarako dohainak.
- Publizitate kanpainak definitu eta diseinatzeko gaitasuna.
  - Euskararen goi mailako ezagutza.

### *Kontuan izango dira:*

- E-posta marketin-erako ezagutzak: MailChimp edo antzerako softwareak
  - Gidabaimena izatea
- Berehala lanean hasteko prestutasuna.

### *Eskaintzen dena:*

Urtebeteko lan-kontratua, jardun erdikoa, epea luzatzeko aukerarekin.

*Bidali curriculuma [elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus) helbidera, apirilaren 26a baino lehen, "Publizitate arduraduna" erreferentzia adieraziz.*



# USURBILGO HAUR ESKOLA



0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA  
2022, 2023 eta 2024 urteetan jaiotako haurrei zuzenduta

- **MATRIKULA EPEA:**  
apirilaren 22tik maiatzaren 3ra  
(08:30-12:30 etara Haur Eskolan).

**INFORMAZIOA ETA HITZORDUA:**  
943-374061 telefonoan 08:30-12:30etara  
edo [haurreskola@udarregi.eus](mailto:haurreskola@udarregi.eus) helbidean.

**Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL**

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu



# "Zuei esker lortu dugu helburua"

Udarregi ikastolak 23. Korrikaren harira bildutako laguntza helarazi dio Etumeta AEK euskaltegiari.

Martxoaren 19an geure artetik igaro zen 23. Korrika ahaztezinaren bueltan hainbat ekimen antolatu ziren Usurbilen. Horien artean, Udarregi ikastolaren LH6. mailako ikasleek AEK laguntza xede izanik, azoka solidarioa prestatu zuten. Bost egunez, martxoaren 11tik 15era Agerialdeko patioan, etxean sukaldatutako gozogintzako produktuak edota patata tor-

tilla goxo askoak saltzen aritu ziren. Heltzear zen Korrikaren petoak ere guztion eskura jarri zituzten.

## "Eskerrik asko herri guztiari"

Postu honetan bildutako laguntza, Udarregik eresia zuen kilometroaren bidez, Etumeta AEK euskaltegiari helarazi diote. Une horren argazkia duzue albiste honi atxikitakoa; ikasleok



Udarregi ikastolako LH 6. mailako ikasleek azoka solidarioa prestatu zuten.

jasotako laguntza euskaltegiko ordezkariari helarazitako momentua. Ikastolako LH6. mailakoek jakinarazi dutenez, "ohar honen bidez herri guztiari

eskerrak eman nahi dizkiogu, AEKren alde antolatu genuen azoka solidarioa etorri eta laguntza emategatik. Zuei esker lortu dugu helburua".

## Garbigune mugikorra, Kalezarren

Apirilaren 25etik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Maiatzaren 2an osteguna, garbigune hau Usurbilgo kaxkora eramango dute.

## 1964an jaiotakoen bazkaria ekainaren 1ean izango da

Bazkaria Atxega jauregian egingo da. Izen-emateko epea ere finkatu dute; maiatzaren 15era arte 647 458 997 telefono zenbakian (Mari Jose). Telefono zenbaki horretara deituta jaso ahalko dira ordainketa nola egin nahiz hitzorduari buruzko argibide gehiago.

## 1952an jaiotakoen bazkaria Artzabalen izango da

Apirilaren 27rako antolatu dute kinto bazkaria. Artzabalgo jatetxean batuko dira. Oturuntza eguerdiko 14:00etan hasiko da.

Izena aldeaz aurretik eman behar da. Interesatuak honako telefono zenbakira deitu behar dute: 620 516 715 (Javier).

## Sortalderen informazio mahaia Sutegiren atarian

Energia berriztagarrien kooperatibak informazio mahaia kokatuko du larunbat eta igande honetan, 12:00-14:00 artean, Sutegi atarian. Bazkidetza tramitzeko aukera izango da bertan. Horretarako, beste bide bat ere badute; [sortalde.eus/bazkidetza/](http://sortalde.eus/bazkidetza/) atarian.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
[elkartea@noaua.eus](mailto:elkartea@noaua.eus)

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
[publizitatea@noaua.eus](mailto:publizitatea@noaua.eus)  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
[erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



LUIS ARANALDE

## Martiri harrobia

**G**aza eta Zisjordania martiri harrobi bihurtu dira. Martiri hitza grekotik dator eta testigu edo lekuko esan nahi du. Musulman hauentzat, Alaren erlijioaren etsaien aurka egindako borrokaren ondoriozko heriotza da. "Gure moralagorenean dago, izan ere jendeak bere babesa eta laguntza ematen baitigu. Alarentzat eta jendearentzat bizi gara", dio errefuxiatu kanpo batean dagoen gazte batek bere subfusil eskuan duela. 1948an beren lurraldeetatik kanporatuak izan zirenen ondorengo bat da gaztetxo hau. Adibidez, Yeninen, hiri nagusietako bat, ez dago paretik borrokan erori diren horietakoren baten argazkirik gabe. Haientzat, "martiriak" dira, hau da, Alarengan duten fedearen testigu, Alaren interesak defendatzeko bizia emateko prest daudenak. Hogei urteko miliziano batek honela zioen duela gutxi: "Borrokalari hauek martiri bihurtzen dira eta horrek poztu egiten gaitu. Familia guztietan dago horietakoren bat".

Jainkoaren alde bizia emateko prest dauden hauek gero eta gazteagoak dira Islama erlijioa nagusi den lurralde horietan. Ferial deitzen den palestinar emakume batek 14 urteko bere seme baten argazkia erakusten du. Dron batek hil zuen. Amak kontatzen duenez, behin honela esan zion bere mutikoak: "Zu nitaz harro sentitzea gustatuko litzaidake ni martiri bezala eroriko banintz". Beste



"Jainkoaren alde bizia emateko prest dauden hauek gero eta gazteagoak dira".

ama batek honela zioen: "Martiri izatea aukeratu zuen eta bai lortu ere. Bedeinkatua izan bedi Alá". Haurrak ikastetxetik irtezen direnean dozenaka hilibirekin topo egiten dute, gehienek hildakoren baten argazkia buru dutelarik eta fusil bat eskuan. Gune horretan edo antzekoetan, muturreko indarkeriak haurrengan duen eraginarekin oso kezkatuta dago maisua. Biolentziazko egoera horrek gaztetxoaren psikologia asko aldatu du. Handitzen direnean ea zer izan nahi duten galdetzen diezue-nean, "martiri" erantzuten dute.

Ismael Haniyeh Hamasen buruzagietako bat da. Duela gutxi Israelgo armadak bere hiru seme eta bi iloba hil zituen. "Goraipatua izan bedi Alá, zioen, nire hiru seme eta bi ilobaren martirioaren bidez eman digun ohore honengatik. Baina galera horien bidez, itxaropena, etorkizuna eta askatasuna sor-

**"MARTIRI HITZA  
GREKOTIK DATOR  
ETA TESTIGU  
EDO LEKUKO  
ESAN NAHI DU"**



zten ditugu gure herriarentzat". Musulman hauentzat, lurralde horietan egiten ari diren guduari "gerra santua" deitzen diote, "jihad" beren hizkuntzan. Eta gerra santu horretan hiltzen direnentzat Alak emango dien saria ez da nolana hiko. Martiri horiek Jainkoaren sei bedeinkazio jasoko dituzte: "Bekatu guztien barkamena; bere lekua erakutsiko zaio paradisuari; hilobiaren frogatik salbuetsia izango da; azken epaian ez du beldurrik pasako; bere aurrean duintasunezko koroa bat jarriko zaio; hirurogeita hamabi birjinekin ezkonduko da". Beste txosten baten arabera, martiriak Jainkoaren zazpi bedeinkapen jasoko ditu eta beste iturri batzuek diotenez, bederatzita edo hamar.

Ekialde Hurbileko kazetari batek dio: "Gazako gazteak eta erbesteratuak nazioartera joan dira berehalako su-etena eskatuz. Nork entzungo ditu gazte horien eskaerak? Haiak dira Palestinako etorkizuna eta haien ahotsak entzun behar dira". Gaztetxo eta gazte horiek bizia nahi dute eta hori bakean, anaitasunean, eta ez Alaren promesak direla eta zerura lehenbailen joatea. Engainatuak izan dira. Penagarria!

## Aho-hortzetako osasuna hobetzeko hitzaldi sorta

Hortz kliniketako higienista izateko ikasten ari da Moraysys Silva Rodriguez usurbildarra Easo Politeknikoan eta gradu amaierako proiektuaren bitartez, usurbildarren aho-hortzetako osasuna hobetzen lagundu nahi du beste hiru kiderekin batera.

### Apirilaren 26an, Potxoenean

Lehen hitzaldia apirilaren 26an izango da Potxoeneko proiektore gelan. 16:00etan hasiko da. Maiatzaren 3an aldiz, Udarregi Ikastolan eskainiko dute eguneko lehena 14:45ean. Solasaldi hori haur eta gazteei zuzendutakoa izango da. 18:30eko saioa Emakumeen Etxean izango da eta helduei eskainia izango da.

## Odol ematea

Datorren saioa maiatzaren 6an izango da, 16:30-20:10 artean, Udarregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

## Sareren mobilizazioa

Hilabete honi dagokion elkarretaratzea ostiralean, apirilaren 26an, 20:00etan Mikel Laboa plazan.





## Ezinbestekoak izan zarete!

### USURBIL 1936 MEMORIA HISTORIKOAREN ELKARTEA

1936ko gerrak gure herrian izan zuen eragina ikertzen hasi ginenean, ezer gutxi genekien Andatzen abuztuaren bukaeratik irail erdialdera izan ziren borrokez. Justu lubaki batzuen zantzuak eta informazio apur bat. 2022 eta 2023ko udan arkeologo taldearen eta auzolanear aritutako herritarren laguntzari esker, gaur egun gehiago dakigu eta, garai triste eta gogor batekoa izaki ere, Usurbilgo ondare historiko bat agerian jartzea lortu dugu. Are, panelez eta QR-z hornitutako Andatzako Oroimen ibilbidea markatu

dugu nahi duenak, nahi duenean, bere kasa ikusteko aukera izan dezan.

Apirilaren 13an berreskuratutako lubakiak erakusteko eta Andatzako defentsa lerroan jazotakoaz informatzeko, testuinguru historikoa azaltzeko eta lan arkeologikoen emaitzak erakusteko bisita gidatua egin genuen, pasarte antzeztu batzuekin girotuta. Hasiera batean asmoa iazko urrian egitea zen baina orduan, oraingoan ez bezala, eguraldia ez genuen alde izan.

Aitortu behar dugu gure elkarte ur handiegitan sartu zela, antzezpeneren ezaugarriez gain, antzeztokia mendian bertan izateak sekulako konplikazioak ekarri baititu. Baina egin genuen eta

bisitan parte hartu zutenen 80 bat lagunuen aldetik jasotako mezuen arabera, nahiko txukun geratu zelakoan gaude.

Hau guztia ezinezkoa izango zen gure elkarteko indar apurrekin. Ezinezkoa izango zen antolaketa lanetara hainbat lagun batu ez baziren (Iñaki, Fermin, Mikel); udalaren eta udal-brigadaren laguntza izan ez bagenu; beren ibilgailu bereziekin Ugaitz, Luis, Xabier, Juanjo, Maider, Victor inplikatu ez baziren; kanpotik etorritako Oroimen detekzio taldea, Intxorta 1937, Lubakikoak, Euzkadiko Fronteak, Burdin Hesiaren Oroimen museoa, Iparraldeko Artilleria elkarteetako eskarmentu handiko kideen partaidetzarik gabe; Elgetako udalak utzitako

materialik gabe; azalpen argiak eman zituzten Aitor eta Josurik gabe; grabazio eta argazkigintzan aritu ziren Mattin eta Ibai gabe; figurante moduan parte hartu zuten kanpoko eta, bereziki, herriko gazteen inplikaziorik gabe edota aholkutan, dekorazioan, atonketan eta logistikan aritu ziren lagunik gabe. Eta bukaeran, Aitzaga elkartearen bazkaria goxoa prestatu ziguten Arkaitz eta Karlos gabe. Orotara, 45-50 pertsona.

Guztiak bidelagun izan ditugu abentura honetan eta biziki eskertu nahi ditugu horren ezkutuan egon den eta hainbeste sufrimendu eragin zuen gure historiaren zati hau argitara ematen laguntzeagatik. Hau ere herria egiteko modu bat.

## Badago alternatiba: langile boterea eraiki

### BURUNTZALDEKO KONTSEILU SOZIALISTA

Maiatzaren lehenerako mobilizazioa deitu du Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak. Ideia argi bat dago azpimarratzeko, instituzioetatik at dagoela benetako alternatiba. Instituzioen alternatiba faltsuak salatzen aritu gara azkenaldian, kalean mobilizatu beharraren aldarria egiten, eta maiatzaren lehen honetan langile boterearen eraikuntza aldarrikatzera

aterako gara kalera Bilbon. Enpresarien eta instituzioen aurrean langileriaren antolakuntza independentea garatzea ezinbestekoa dugu.

Langile klaseko kideon bizi-baldintzak okertzen ari dira etengabe, eskubide politikoen zein ekonomikoen esparruan. Genozidioa eta gerra munduaren egunerokoaren parte bilakatu dira. Palestinako herria errausten ari dira mendebaldeko politikarien zuzeneko edo zeharkako babesarekin. Eskala handiko gerra berri baten mehatxua ere

presente daukate agintariarik. Estatuen barne aparatuei dagokienez, kontrol soziala, errepresio politikoa eta langile klasearen aurkako jazarpenak geroz eta agerikoagoak dira. Zer esanik ez esparru ekonomikoari buruz: lan-baldintzen etengabeko okertzea, oinarriko produktuen garestitzea edota etxebizitza eskuratzeko ezintasuna gure errealitatearen parte bilakatu dira.

Hori guztia alderdi instituzionalen zuzeneko parte hartzearekin daramate aurrera mendebaldeko

oligarkiek. Instituzioak horretarako daude: mendebaldeko agintarien zein enpresarien mandatuak betearazteko. Baita politikaren ikuspegi kapitalista bat gailentzeko ere. Iruzur instituzionalaren aurrean, Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak kalera irteteko deia egiten du. Enpresari eta politikari profesionalen aurka. Militantziaren eta antolakuntza komunistaren alde. Gerra eta basakeriaren aurka, bizitzaren garestitzearen aurka. Estatu sozialistaren alde. Maiatzaren 1ean Bilbora!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus





Usurbildarrak lehen unetik eta etenik gabe joan-etorrian ibili ziren herriko hautesleku ezberdinetan.

# Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan, EHBildu garaile argia izan zen Usurbilen

Usurbilgo udalbatzan ordezkariak duten udal talde politikoek duten babes hurrunkeraren islada argia izan ziren iragan igandean eginiko Eusko Legebiltzarra berritzeko hauteskundeak.

Izan ere, EHBildu nagusitu zen botoen ia bi herenak, %62,65a (1.942 boto) eskuratuta. Ia hirukoiztu egin zuen koalizioak, bigarren indarrak, EAJ-k jasotako babesa. Jeltzaleek botoen %22,10 eskuratu zuten (685 boto).

Boto gehien jasotako hirugarren eragile politikoa PSE izan zen. EAJk eskuraturiko babesaren herena jaso zuen, botoen %6,77 (210 boto).

Izan zen, estreinakoz deialdi honetara aurkezturiko eragile politikoa berririk; hain zuzen, laugarren indar politikoa bozkatuena, Sumar. 77 boto eskuratu zituen, bozken %2,48. Lehiakide zuzena zuen Elkarrekin Podemos-Alianza Verdek 52 boto jaso zituen. Izan zen, estreinakoz parte

hartu zuen beste eragile politikoa. Sei boto jaso zituen.

## Gorabeherak

Aipatu moduan, udalbatzako zer nolako babesa duten aintzakitatzat hartuta, ez dago aldaketarik. EHBildu izan da azken urteotan bezala, boto gehien jasota dituen eragilea;

**AZKEN URTEOTAN BEZALA, EHBILDU IZAN DA BOTO GEHIEN JASO DITUEN ERAGILEA; SEGIDAN, EAJ-PNV ETA HIRUGARRENIK, PSE-EE**

segidan, EAJ eta hirugarrenik, PSE.

Aldiz, bakoitza jasotzen ari den babesaren ehunekoari dagokionean bai, hor izan da aldaketarik. Izan ere, hiru alderdiek boto kopurua gehitu zuten, 2020ko uztaileko hauteskundeetako emaitzekin alderatuta. Baina ehunekoei

**USURBILGO PARTE-HARTZEA, GIPUZKOAKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGO OSOKOA BAINO HANDIAGOA IZAN ZEN**

begira, hor bada alderik. Duela lau urteko deialdiko emaitzekin alderatuta, babes handiagoa eskuratu duen bakarra EHBildu izan da. Botoen %62,65 eskuratu zituen igandean, %58,72ko babesa jaso zuen 2020ko uztailean. Ia lau puntu egin du, beraz, gorantz koalizioak.

Aldiz, EAJ-k eta PSE-k ehunekook murriztu dituzte. Jeltzaleen kasuan, %24,31tik %22,10era murriztu du usurbildarren aldetik jasotako babesa; %6,79tik %6,77ra txikiagotu du PSE-k.

Babes gutxiago jaso duten beste eragileen artean da, Elkarrekin Podemos-Alianza Verde; lau puntu murriztu du botoen ehuneko; 2020an %5,94ko babesa jaso zuen Usurbilen, %1,68koa iragan igandean. Aldiz, %2,48koa eskuratu zuen estreinakoz, deialdi honetara aurkeztu den Sumarrek. Sumarrek kendu dio, duela lau urte Elkarrekin Podemosen laugarren postua.


**%63,64ko parte hartzea, 2016ko ehuneko bera**

Duela lau urte galdutako parte hartze kuota berreskuratu zuen Usurbilek apirilaren 21eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan. Izan ere, 2020ko uztailean egin ziren Gasteizko parlamentua berritzeko azken bozketa egunak %57,98ko parte hartzea sustatu zuen. Gogoan izan, Covid-19ak eragindako osasun krisialdi betean egin ziren hauteskunde haiek, salbuespenetzko testuinguru betean honenbestez.

Lau urte atzerago eginda, 2016ko urriko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan, %63,64ko parte hartze datua erregistratu zen Usurbilen, hain justu pasa den igandean izandako ehuneko bera. Honenbestez, aipaturikoa; 2020ko uztailean galdutako



## EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK, 2024 VS. 2020



Alderdi nagusiek gora egin zuten boto kopuruan. Igoera nabarmenena ordea, EH Bildurena izan zen.

parte hartze ehunekoa berreskuratu zuen iragan igandean udalerrri honek.

Usurbil, gainerako eremuekin alderatuz gero, egunean zehar izandako joera berre-

tsi dute behin-betiko emaitzek.

Udalerrri honetako parte hartze ehunekoa, Beterri-Buruntzako gainerako udalerrriena, Gipuzkoakoa eta oro

har, hiru lurraldeetakoak baino handiagoa izan da.

Beterri Buruntzari dagokionean, parte hartze baxuena %56,34koa izan zen Urnietan. Altuena, Usurbilen ondolik

Astigarragan (%61,03). Apirilaren 21ean hauteskunde eguna bizi izan zuten hiru euskal lurraldeei dagokionean, Bizkaia izan zen Usurbilgo parte hartze datuari gehien hurbildu zitzaiona (%63,41), Gipuzkoako bataz bestekoa ere hobetu baitzuen Usurbilek (%61,71ko parte hartzea herrialde honetan), baita EAEko %62,52ko bataz bestekoa ere.

### Gipuzkoako emaitzak

75 legebiltzarkideez osaturikoa da Eusko Legebiltzarra. Bizkaia eta Arabak adina ordezkari du Gipuzkoak, 25 legebiltzarkide. Herrialde honetan hain zuzen, EH Bildu nagusitu zen; 25etik 11 legebiltzarkide eskuratu zituen. Bi gutxiago EAJk, guztira bederatzi. PSEk lau eta azkenik, PP-k bakarara.

Iragan igandeko deialdira aurkezturiko gainerako zazpi eragile politikoek ez zuten ordezkariarik eskuratu Gipuzkoan.

## Hauteskundeak berriz, Europakoak ekainean

Iragan igandeko bozketa eguna igaro berritan, udalerrri honetarako jada ofizialki deituak dauden bigarren hauteskundeek begirako prozesu betean gara. Izan ere, gogoan izan, ekainaren 9an, Europako parlamentua berritzeko hauteskundeak izango ditugu. Bost urtero berritzen dira Europako erakundeak. Azkenekoz, 2019ko maiatzaren 26ko udal eta foru hauteskundeekin batera egokitu zen. Datozenak, berez, Europako estatuak ekainaren 6tik 9ra, tarte horretan deitu ahalko dituzte. Euskal Herri osoan, azken egon horretan, ekainaren 9an izango dira. Bost urtean behin

deitzen diren hauteskundeok hamargarren aldiz egingo dira, baina Usurbilen eta Hego Euskal Herrian bederatzigarren aldiz, espainiar estatuak 1986an erabaki baitzuen Europar Batasunean sartzea.

### 720 ordezkari

Europako Parlamentua 720 ordezkari osatzen dute. Haietatik 61 ordezkari espainiar estatuari dagozkie. Hautagai-zerrenda bakarra, itxia eta bera aurkeztu ahal du eragile bakoitzak estatu osorako, nahiz, zerrenda hauetako hautagaiak eskatu ahalko duten, haien hedapena estatu osokoa ez izatea, izen, sigla edo sin-

bolo eta hautagai ezberdinenekin.

### Prestaketak martxan

Europako hauteskundeek begirako prestaketa lanak abian dira ofizialki. Badira kontuan hartu beharreko hainbat deialdi:

- Apirilak 16-maiatzak 30: posta bidez bozkatzeko aukera.
- Apirilak 22-29: hautesleentzako erroldaikusgai eta alegazioak aurkezteko epea udalean.
- Maiatzak 8: hauteskundeetara aurkezturiko hautagai-zerrendak argitaratu dituzte Estatu Aldizkari Ofizialak.
- Maiatzak 11-15: mahaikideak hautatzeko zozketak

udal txetan (maiatzaren 18ra arte jakinarazpenak heltzeko tartera).

- Maiatzak 13: hauteskundeetara aurkezturiko hautagai-zerrenden aldarrikapen ofiziala.
- Maiatzak 20-ekainak 2: posta bidez botoa emateko eskatu dutenek beharrezko dokumentazioa jasoko dute.
- Maiatzak 24-ekainak 7: hauteskunde kanpaina.
- Ekainaren 5era arte: posta bidez botoa emateko aukera.
- Ekainak 8: hausnarketa eguna.
- Ekainak 9: bozketa eguna, 9:00-20:00 artean.

### Informazio gehiago:

info.eleccioneseuropas2024.es/eu



Ibai Agirresarobe erdikoa da, Spain Skills txapelketan hasi baino lehen.

# "Makina ia guztiek patroi berberak jarraitzen dituzte"

**IBAI AGIRRESAROB**E USURBILGO LANBIDE ESKOLAKO IKASLEA

Duela bi aste jokaturako Spain Skills trebetasun txapelketan, Ibai Agirresarobe usurbildarrak bigarren postua lortu zuen robotika arloan.

## **NOAUA! Spain Skills lehiaketan bigarren egin duzu.**

Lanbide hezkuntzan arlo ugari daude: iturgintza, mekanizazioa... Nire kasuan, automatizazioa eta kontrol industrialeko arloa. Bi urtean behin, lanbide eskolen arteko lehiaketa izaten da trebetasun horiek konparatzeko. Gela bakoitzean pertsonak aukeratzen dituzte, banaka zein binakako txapelketetan parte hartzeko. Nik bakarkako modalitatean hartu dut parte. Beraz, behin klasean nengoela irakaslea etorri zitzaidan eta ekaineko Eusko Skillsen parte hartzea proposatu zidan. Azaldu zidan ikastetxeen arteko lehiaketa izaten dela eta proba ezber-

dinak jartzen zituztela, horietan lortutako emaitzekin puntuak lortzen zirela eta oso zaila zela, baina prestaketaxoa egingo genuela. Esperientzia probatu, jendea ezagutu eta ondo pasatzeko asmoz joan nintzen. Arlo bakoitzeko lehiaketa enpresa batek antolatzen du, eta nire kasuan, Siemens enpresa arduratu zen. Gutxi gorabehera zer eskatuko ziguten bagenekien, baina ez zehazki. Makina birtual bat erabilia, funtzio ezberdinak egiteko programatu behar genuen haiek emandako zerranda baten arabera: makina programatu eta martxan jarri. Gradua amaituta geneukan ordurako, eta suposatzen da

ordu arte ikasitakorekin gaitasuna geneukala hori egin eta inprobisatzeko. Makina ia guztiek patroi berak jarraitzen dituzte edo ia denek.

**Proiektu hori egiteko zer lan egin behar izan duzu aldezturik?**  
Aurreko txandan egitea tokatu zitzaizen proba begiratu

**"AUTONOMIA ERKIDEGOAK ELKARREN AURKA LEHIATU GINEN GARAIPENA LORTU NAHIAN"**

genuen eta hori prestatu. Normalean, proba argitaratu egiten dute. Hala, duela bi urte egin zuten proba entseatu nuen klasean. Proba hori egiteko gai nintzela ikusita, aurrera egitea erabaki nuen eta lehiaketan izena ematea.

## **Eusko Skills irabazita pasa zinen Spain Skillsera.**

Bai, Eusko Skills txapelketan lehenengo postua lortzen duenak Spain Skillserako txartela lortzen du. Azken horretan, lehen postua erdiesten duenak Europako eta Munduko txapelketa jokatzeko aukera izaten du. Nik bigarren postua lortu nuen Spain Skillsen, beraz, ezingo dut Europako eta Munduko txapelketetan parte hartu. Azken finean, Espainiako txapelketara joateko Euskadiko selekzioa osatu genuen arlo guztietako parte hartzaileen artean. Arotz bat geneukan, karrozaria, mekanizaziokoa... Hala, autonomia erkidegoek elkarren aurka egin genuen, eta jakina, bat bakarrak lortzen du Europako eta munduko txapelketetarako txartel preziatu hori. Eusko Skillsen parte hartzeko nire arloan bik joan behar genuen, baina arautegi bat dago eta adin-muga zehaztuta daukate. Beraz, nire ikaskideak ezin izan zuten parte hartu eta bakarrik joan behar izan nuen. Hala ere, hura beste txapelketa batean izan zen eta klaseko beste bi ere bai. Denera lau joan ginen, baina Iruneko txapelketan nik bakarrik lortu nuen Espainiako txapelketara pasatzea.

**Automatizazioa eta Robotika Industrialeko ikasle zirela lortu zenuen Eusko Skills irabazita Spain Skillserako txartela. Nolatan erabaki zenuen ikasketak horiek egitea?**

DBH amaitu nuenerako argi neukan teknologiararen bidea hartu nahi nuela. Batxilerra egitea pasatu zitzaidan burutik, baina aitak Lanbide





Podiumera ikurrinarekin batera igo zen. Argazkian, ezkerrean da.



Ibai makinarekin lanean, txapelketa betean.

—> Heziketako bidea hartzea proposatu zidan, edo behintzat aukerak begiratzeko. Nik ordurako nahiko argi neukan batxilerrera jo nahi nuela. Hala ere, aukera bat eman nahi nion Lanbide Heziketari eta ate irekietan elektrizitateko ikasketen funtzionamendua ezagutzera joan nintzen. Oso praktikoa iruditu zitzaidan eta makinak erabilia ikasteko aukera. Batxilerrarekin alderatuz, askoz ere teknikoagoa zela ikusi nuen eta polita iruditu zitzaidan. Elektrizitatean hasi nintzen eta erdi-mailako zikloa osatu nuen. Praktiketari lan egiteko aukera izan nuen eta jendea programatzen ikusteko, makinak martxan jartzen. Askok gustatu zitzaizdan eta probatu behar nuela erabaki nuen, bide horri heldu behar niola. Halako moduko bat piztu zitzaizdan barruan.

Robotika ikasi nahi nuela erabaki nuen, eta Usurbilgo Lanbide Eskolan ikas daiteke, gainera. Aukera ederra irudi-

tu zitzaidan eta goi-maila egin nuen.

**Unibertsitateko ikaslea zara Elektronika Industrialeko ingenierritzan. Goi-mailan ikasitakoak eman dizu gogo horretan sartzeko?**

Robotika eginda programatzen hasi nintzen eta makinak martxan jartzen, baina lanean joan nintzenean, konturatu nintzen ikasketa zuzenak egin nituela, baina praktikan zerbait gehiago behar nuela. Makina txikiekin moldatzen nintzen, eta klabeazioarekin ere arazorik gabe, baina makina handiak martxan jartzea izugarritzko erronka zen niretzat.

**"ASKOK LANBIDE HEZIKETAN EZ DU PENTSATZEN, ETA OSO AUKERA ONA DA ZEURE BIDEA AURKITZEKO"**

Ezagutza gehiago behar nuela konturatu nintzen elektrizitatean eta informatikan, batez ere, baina baita beste zenbait arlotan ere. Eta hori ingenierritzak eskaintzen du.

**Lanbide Heziketatik etorrita, batxilerretik zuzenean joandako ikasleekin alderatuta abantaila izan zenuen?**

Bai, neurri handi batean bai. Irakasleak zerbait azaltzen hastean ideia bat badaukat lehenagotik, eta horrez gain, oso argi daukat ikasketa horiek egin nahi ditudala.

Batxilerretik etorrita hori guztia ezin jakin, ez aurrezagutzarik, ez gustatuko zaitzun ziurtapenik ere. Jende

**"JAKITEKO GOGOA IZATEA DA GAUZARIK GARRANTZITSUENA ZATOZEN LEKUTIK ETORRITA ERE"**

askok Lanbide Heziketa egitea ez du pentsatu ere egiten, eta egia esan oso-oso aukera ona da zeure bidea aurkitzeko, eta horrek gerora ere aukera ematen du unibertsitate ikasketak egin nahi izanez gero ere. Hori enpresetan ere nabari dela esan izan didate praktiketari.

Unibertsitatean lehen urtea oso teorikoa da, eta horretan, asko ikastera ohituta daudenean abantaila dute, hau da, batxilerretik etorritako ikasleek. Motibazio eta gogoan dago alderik handiena. Jakiteko gogo da garrantzitsuena zaitozen lekutik etorrita ere.

**Unibertsitatean ere, halako prestigioa lortu al duzu Spain Skill-seko bigarren postuarekin?**

Uste nuen astebete eskolatik kanpo eman behar nuenetz, izugarritzko trabak jarriko zizkidatela. Ez da horrela izan. Azterketa bat aurreikusita geneukan, eta aldatu egin zuten. Aste osoa moldatu zidaten gerora arazorik ez izateko.

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil





Hainbat herritar Thierry Escaichen kontzertua zuzenean jarraitzen elizan.



Sagasti artean bertsoan Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña.

## Organo kontzertua Salbatore elizan

Thierry Escaich organojoleak kontzertua eskaini zuen igande arratsaldean Salbatore elizan, Gipuzkoako Organoak Plazara 2024 egitarauaren barnean. Erdi inprobisazio lana osatu zuen organojoleak eta bertaratutako ikus-entzuleek pantaila baten bidez jarraitu zuten gertutik musikariaren lana.

## Bertso-ibilaldia Zubietan

Sagastiak izan zituzten hizpide igande goizean Iruingo apartokalekuan elkaturiko herritarrek. Bertso-ibilaldiaren baitan, Jakoba Errekondoren azalpenak Maialen Lujanbiok eta Andoni Egañak jantzi zituzten bertsoen bitartez. Sagastiei buruz ikasi eta goizpasa ederra egiteko parada izan zuten.



Zubietarra bigarren izan zen 60 metroko lasterketan.



Gure Pakea jubilatutako elkarteak lau antzezlan taularatu zituen aurreko ostiralean.

## Oier Jauregi atleta, onenen artean

Gipuzkoako haur eta alebin kategorietako txapelketak jokatu ziren apirilaren 21an Arrasaten. Oier Jauregi zubietarra bigarren sailkatu zen 60 metroko lasterketan eta hirugarren izan zen jauzi hirukoitzean. Ostadar taldeko atletismo taldearekin parte hartzen du lehiaketetan.

## Emakumea, antzezlanen ildo

Antzerkigile ezagunen lau antzezlanen gozatzeko aukera izan zuten iragan ostiralean Sutegiko auditoriora bertaratu zirenek. Gure Pakea jubilatuen elkartearen eskutik, "La fablilla del secreto bien guardado", "El Oso", "Cuando las mujeres juegan al mus" eta "Sinceridad" izeneko antzezlanak taularatu zituzten.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
9:00-13:30  
ASTEARTETIK LARUNBATERA  
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

USURBIL DÖNER KEBAB  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

943 361 182  
**EROSKI** / city  
kale Nagusia 10, USURBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08



# USURBILGO LANBIDE ESKOLAko ATEAK ZABALIK



MAIATZAK 4  
larunbata

10:00 erdi maila

11:30 goi maila eta espezializazioa

erdi maila  
maiatzak 7 17:00tan

osteguna

goi maila eta espezializazioa  
maiatzak 8 17:00tan

asteartea

EZAGUTU  
GURE IKASTETXEA!




IZENA EMAN

tel. 943 36 46 00

[WWW.LHUSURBIL.EUS](http://WWW.LHUSURBIL.EUS)

## ARATZ

zabaleta anaiak  
1989tik



Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia      erreserbak: 943 21 92 04





Zirriborro tailerreko lagunek 'Borobil' ikuskizunaren prestaketa lanetan parte hartu dute.

# "Dantza Eguneko ikuskizunerako mural bat prestatuko dugu"

UNAX ARROSPIDE ZIRRIBORRO TAILERREKO IKASLEA

Zirriborro Tailerreko lagunak arduratu dira larunbat honetan ospatuko den Dantza Eguneko 'Borobil' ikuskizuneko atrezzoak prestatzeaz. Zehazki, Susana Martin irakaslea eta Unax Arrospide ikaslea. "Murala nahiko handia da, baditu metro batzuk", azaldu digutenez.

**Zirriborro tailerrekoek egin duzue BOROBIL ikuskizunaren atrezzo lana. Orbeldik eskatu zizuen atrezzo lanarekin laguntzeko edo Susanari bururatutako proiektua da?**

Dantza taldekoek denborarekin Susanari egin zioten proposamena atrezzoak prestatzeko. Beraz, klasean aipatu zigun ea interesatuko litzagukeen parte hartzea. Aste Santuan deitu zidan galdetzeko ea azkenean animatuko nintzen, eta baiezkoa eman nion. Ordurako idea ondo pentsatuta zeukan Susanak eta segituan ekin genion lanari. Hiru bat eguneko kontua izan zen eta jada bukatuta daukagu.

**Atrezzoaz ari garenean, zer da modu zehatzagoan egin duzuen? Murala, zutabeak...**

Mural moduko zerbait da. Ez dut ezer gehiegi aurreratu nahi, halako lanen xarmamomentuan ikusi eta balioan jartzean oinarritzen baita. Hala ere, aurrerapen txiki bat egingo dizuet. Dantza taldekoek ez zuten handiegia izaterik nahi marrazkia, baina bista batean ulertzeko modukoa izatea nahi zuten. Denok ondo ezagutzen dugun borobil bat marraztu eta margotu genuen, ahalik eta modurik errealistenean. Hondoan momentuan gogoak emanda egin genuen, inspirazioak eskatzen zigunaren arabera. Tela

handi batean dago eginda. Zerua arropa margotzeko erabiltzen den pinturarekin dago eginda, spray moduko batekin. Marrazkia pintura akrilikoarekin egin genuen. Pieza nahiko handia da, baditu metro batzuk. Arazoak izan genituen tamai-

**"HIRU BAT EGUNEKO KONTUA IZAN ZEN ETA JADA BUKATUTA DAUKAGU BOROBIL IKUSKIZUNEKO ATREZZOA"**

narekin; ez genekielako non sartuko genuen.

**Zein talderekin egin duzue lan hau? Haurrek egin dute, helduagoek... Zenbat pertsonaren arteko lana izan da?**

Susanak jende askori proposatu ziela uste dut lan hau egitea, eta nik ere neure taldekoei aipatu nien anima zitezten. Hala ere, azkenean bion artean egin behar izan genuen lana.

**Sorkuntza prozesua nolako izan da?**

Hiru egunetan egin genuen, esan bezala. Lehen egunean, dantzakoen lokalean elkartu ginen eta ordurako Susanak marrazkiaren zirriborroa prestatu zeukan.

Zeruari heldu genion lehen-dabizi. Uretan disolbatzen diren hauts batzuk erabili genituen horretarako. Brotxakada artistiko batzuk ere eman genizkion eta lehortzen utzi genuen. Hurrengo egunean, goizean, kanpoan jarri genuen eta akrilikoarekin marrazkia margotzen hasi ginen. Arratsaldean, horrekin jarraitu genuen eta lehortzen utzi genuen. Azken egunean, berriz, argi-ilunak landu genituen dimentsioa emateko eta xehetasun batzuk gehituta amaitutzat eman genuen.

**Urte asko daramatzazu Susanarekin?**

Marratzeko gogoia betidanik izan dut, baina Zirriborro tailerrean DBH4n edo batxilerrako lehen urtean hasi nintzen. Gauza asko ikasi ditut ordutik, eta pazientziarekin gauzak hartzen, batez ere. Oleo koardroekin ibili naiz, batez ere. Bestelako marrazkiak ere egin ditut pastelekin eta akuarelekin, adibidez, edo Susanak proposatutako eskulanak ere egin ditut.

**Orain nolako lanak egin nahi dituzu hemendik aurrera?**

Gehiago esperimentatzea gustatuko litzaidake eta ikastentzen jarraitzea urte askoan.





Udaletxe aurrean harrera egin zieten dantzari txikiei.



Olanoeneko plazak ikuspegi ederra eskaintzen die ikusleei.



Munalurrako plazan dantzan Orbeldiko lau dantzari.



Dantzari Txiki egunak ikusle ugari erakarri zituen.



Herriko txistulariek girotu zuten Dantzari Txiki eguna.



Kalejira frontoian amaitu zen. Bertan egin zituzten azken saioak.



Errenterriako, Getariako, Zarauzko eta Usurbilgo dantzariak, batera dantzan.



5. Dantzari Txiki Egunean parte hartu zuten dantzarien amaierako argazkia.





Urtebetetzeetan abesten dugun kantu ezaguna Kaxianorena da, eta leloa buruz dakizu:

**Zorionak zure urtebetzean, Zorionak ta urte askotarako, Zorionak belarritik tiratzean, Zorionak ta musu bat zuretzako.**

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia eta abestiaren lehen ahapaldia azalduko zaizu. Horretarako, erabili beheko alfabetoa.

**ZORIONAK!**

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Hau da urtebetetze festa oparoa! Hemen gauza asko dago jateko! Irudi honen eta alboko bere islaren artean dauden aldeak aurkitu behar dituzu. Hamaika dira guztira.





L		P	A	S	
A	E		P	T	L
	A			L	S
T	S	L	E		P
E	L		S	P	T
	P	T		E	A

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak PASTEL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (P, A, S, T, E eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



**Labirintoa**

Zenbat urte bete ditu Pellozirik?

**ASKARI OPAROA**



**Pastela**



**SUDOKUA**

Maripurtzili atsegin zaion bizkotxoak honoko osagai hauek ditu: hiru arrautza, ontzi bat irin, ontzi bat gozoki, ontzi bat olio, zorrotxo bat legamia, pote bat jogurt, limoi bat eta txokolatezko krema. Zenbat bizkotxo aterako zaizkio?



**DOMINOAN**

Urtebetzeetarako oso aproposa den domino honek sei irudi ditu: banderatzokak, kandela, tarta zatia, puxika, oparia eta zorion txartela. Bete lauki zuriak, bakoitzari dagokion irudia marraztuz.



Soluzioak 24. orrialdean.





Apirilaren 13ko bisita gidatu antzeztuan boluntario talde handi batek hartu zuen parte.

# Andatza gaina, 1936ko gudaleku latzean biziberritua

Usurbil 1936 elkarteak eragile gehiagorekin lankidetzan antolaturiko bisita gidatua eta antzeztua burutu zuen apirilaren 13an, duela ia 90 urte defentsa-lerroa izan zen Andatza tontorrean. Gerra hartako aztarnen lekuko izan ziren parte hartzaileak. Orduko hainbat gertakari biziberritu zituzten, garai hartako dokumentu eta lekukotzetan oinarrituta.

Benetan latza garai hartan bizitakoa. Era berean ikusgarria, nola biziberritu zuten apirilaren 13an Andatza gainean, 1936an jazotakoa. Orduko gertakarietan bete-betean murgilarazi zituen Usurbil 1936 elkarteak eragile gehiagorekin lankidetzan, bertan antolaturiko bisita gidatu eta antzeztuko parte hartzaileak. Eredu honetan jazotakoa azaldu zieten Usurbil 1936 elkarte kideek bisitariari. Garai hartan, berebiziko garrantzia izan zuten hainbat pertsona biziberritu zituzten; hala nola, Zubietako eskolako maixu izandako Koxme Yagüez Beristain, Orioko mendate inguruan fusilatu zutena. Ga-

raiki fronte popularreko kazetariarekin igo zen frontearen berri jasotzera. Kandido Sasetta Etxeberria komandantea zain zuten bertan. Gerra leher-tutakoan, "Gipuzkoako defentsa antolatzeko agindua jaso zuen". Horren eta bonbardaketa simulatu baten zein defentsa une latzen lekuko zuzenak izan ziren bisitariak.

## Herrikideak logistikan

Izan ere, Usurbil 1936 elkarteak azken urteotan, herriko oroimen historikoa berreskuratzeko eginiko lanetari esker ezagutu ahal izan dugunez, gutxienez 19 hildako eta 55 zauritu izan ziren 1936ko gerran Andatzako defentsa-le-

roan, urte hartako irailak 5-20 artean. "Borroka latzak" izan zirela azaldu zuten bisitan zehar.

Faxistei aurre egiten jardundakoak, gehienak herritik kanpokoak izan zirela berri eman zuten; Usurbildik gertuen, Donostia edota Pasaia aldekoak. Urrunagotik heldu-

## USURBIL 1936: "USURBILDARREK BATEZ ERE, LOGISTIKA MAILAN PARTE HARTU ZUTEN"

takoak ere izan ziren; Bizkaia, Asturias edota Galiza aldetik etorritakoak. Halere, usurbildarrek "batez ere logistika mailan parte hartu zuten", azaldu zuten Usurbil 1936 elkarte kideek.

Defentsa fronte honi lotutako azpimarratzeko moduko bi ezaugarri aipatu zituzten. Batetik, defentsa-lerro luzeago baten katebegi garrantzitsua izan zela Andatzakoa. Izan ere, Irunetik hasi eta Ormaiztegiraino luzatu zen katea osatu zuten. Kate horren bueltan ziren baita, besteak beste, Bordatxo mendia, edota Zubietako Txaldatxur ingurua. Bestetik, borrokaldietan zegoen desoreka nabaria ere agerian utzi zuten. "Kontuan izan, soldadu profesionalak ziren" faxistak. Aldiz, inguru hau defendatzen ari zirenak, "gazteak, esperientziarik gabekoak", eskura zituzten armekin borrokatu zirenak, nabarmen gutxiago. "Faxistak 800 bat. 450-550 miliziano eta gudari hemen".

## Hildako herrikideak

Bitxikeria moduan nabarmendu nahi izan zuten, herrian bertan 1936ko gerrak utzitako arrastoaren adierazle, lehenengo eta azkeneko hildakoak herritarrak izan ziren. Lehenengoa, Joxe Aburruza Otegi. Trenbideko langilea, 1934-36 urte artean zinegotzia izandakoa, ezkertiarra. "Gerra hasi zenean, berehala engaiatu zen Errepublikaren defentsan". Oroimen historikoa berreskuratzeko elkartetik Andatzako bisitan berri eman zuten moduan, "kolpistei aurre egiteko prestaketa lanetan ari zelarik Andatzan, hil egin zen 1936ko abuztuaren 5ean". Bere herriotzaren ondotik, "emazteak eta seme-alabek alde egin zuten".

Testuinguru honetan hildako azkeneko herrikidea, 15 urte gazte zubietar bat izan zen. Andatzara igo eta "obus bat topatu zuten". Baserrira eramandakoan lehertu egin

—> zitzaion eta hil egin zen. Usurbil 1936 elkartetik oroitarazi nahi izan zuten moduan, "pertsonek daude honen atzean, familiak, hildakoak, zaurituak.... Haiek ere gure askatasunaren alde bizitza emateraino dena eman zuten". Inoiz jaso ez duten aitortza merezi dutela aldarrikatu zuten.

**"Ze krudela zen gorputzekiko gerra hau"**

Aurreko bi urteotan, egindako indusketa lanetan azaleraturiko hiru lubaki erakutsi zituen Usurbil 1936 elkartek. Lehenengoa, babesleku pareko zuhaitzian dagoena, hesitua dago, eremua bera zaintzeko eta segurtasun arrazoiengatik. Handik hurbil beste biak, pinudi beraren azpialdean, Andatza tontorrera bidean. Gerra garaian, ez zen zuhaitzikordea, noski, eta beraz, pinudirik gabeko toki gisa irudikatu behar genuela gogorarazi zuten azalpenak ematen aritu zen Josu Santamarina arkeologoak.

Hiru urteko gerraren hasiera izanik eta Gipuzkoan izandako borrokaldia denboran asko luzatu ez arren, "hainbat gotorleku tipologia topa daitezke oso lurralde txikian". Bitxitzat jo zuten guneon bilakaera. "Askotan lubakiak linealak ziren, lerro bat, barrikada moduko bat mendian". Denborarekin, ordea, "hainbat arrazoiengatik, geroz eta gehiago garatu ziren beste forma bat zuten espazioak".

Bisitaturiko lehen lubakia, babesgune parekoa, "sigi-saga" komunikazio lubaki bat zen hein handi batean, "hegazkinen erasoaldiak saihesteko", eta aurrealdeko zatia, borrokarako lubakia; harriekin eta lurrezko zakuekin "harresi modukoak sortzen zituzten". Egitura "nahiko sinpleak", arkeologoak oroitarazi zuenez, "hemengo borrokalari gehienak zibilak ziren" baitziren. Eremu arriskutsuak ziren halere. Lehergailuren batek joz gero, "lehergailuez gain, harri



Andatzako tontorrean antzezuriko 1936ko gerra garaiko pasarte ikusgarrietako bat. Irudi gehiago, noaua.eus atarian.

guztiak metraila gehigarri bihurtzen" ziren eta. Horregatik zioen Santamarinak, "ze krudela zen gorputzekiko gerra hau", baina "materialen eskasiak eta esperientzia faltak agintzen" zuen.

Halere, balioan jarri zuten arkeologoak Andatzako frontea. "Andatzako fronte honen balio gehigarria hori da. Hasierako fronte horien oso adibide ona da, nahiko ondo kontserbatua dagoena". 1936ko gerraren testuinguruan sortutako lehenbiziko frontea "ez dira hainbeste ikertu iberiar penintsulan. Horregatik, hau adibide polita da hori ikusteko".

**"Guztion ondarea da"**

Aurreko bi urteotan Usurbil 1936 elkartek Andatzan bideraturiko indusketa lanetan aurkitutakoaren berri eman eta ikusgai jarri zuten bisitan

**"ASKOTAN LUBAKIAK LINEALAK ZIREN, BARRIKADA MODUKO BAT MENDIAN"**

zehar; ia mila pieza. Gehienak, 800 bat bai gutxienez, bala-zorroak. Baina horiez gain, "latak, goilarak, platerak, arrano formadun bastoien muturrak..." aurkitu zituzten. Andatzako lubaki horretako aurkikuntzak "erakusten digu gastua oso-oso handia zela", arkeologoak azaldu zuenez. Munizioaren jatorriaz ere hainbat xehetasun bildu ahal izan dituzte; Sevilla, Toledo, Palentzia... aldekoa zen. "Fabrika gehienak Francoren esku zeuden", Santamarinak oroitarazi zuten moduan. Ondorioz, "horrek 1936ko urrian Eusko Jaurlaritza behartu zuten kanpoan bilatzera munizio hori guztia".

Eginiko aurkikuntza hauek guztiak arkeologo taldea "garbitzen eta inbentariatzen" ari dela iragarri zuten. Horrekin gero, txosten arkeologiko bat osatuko dute. Eginiko aurkikuntzen zati bat Usurbilen

**"HASIERAKO FRONTE HORIEN OSO ADIBIDE ONA DA, NAHIKO ONDO KONTSERBATUA DAGOENA"**

izango da ikusgai etorkizunean, gainerakoa, Gipuzkoako gordailuan jasoko dute, "beste indusketa arkeologikoetan egiten den moduan".

Santamarinak nabarmendu zuenez, aurkitutakoa "ondare publikoa da, guztion ondarea da". Garrantzitsutzat jo zuten, "hamarkada luzez isilpean egondakoa guztion memoria historikoaren parte bihurtzea". Are gehiago, jakinik "geroz eta zailagoa dela topatzea garai hori bizi izan zuten pertsonarik".

Usurbil 1936 elkartek eginitako ahalegin hau gorai patu eta eskertu nahi izan zuten Santamarinak, baita "metodologia arkeologiko bidez lantzea. Azkenean, informazio gehiago lortu dugu, eta, gainera, gure ondare publiko hori behar bezala tratatzeko eza gutzea. Arkeologo bezala eskertzen da gugan jarritako konfiantza, hau ikertzeko".

Andatzako defentsa-lerroaren berri zehatzago jaso dezakezue, zenbait tokitan (Puelan, babeslekuan...) aurki ditzakezuen paneletan eta guneotan Usurbil 1936 elkartek jarri dituen QR kodeen bidez. Hortik usurbil1936.eus webgunera heldu ahalko zarete.



## HERRIKO TALDEAK



Gerra garaiko armamentua baliatu zuten apirilaren 13ko ikuskizunean.



Usurbil 1936 elkarteak Andatzako lubakietan eginiko aurkikuntzen lagin bat.



1936ko gerra garaiko Andatzako defentsa-lerroa, bisitan biziberritu zutena.



Andatzako tontorrean, gerra garaiko defentsa eremua oroitzen.



Andatzako 1936ko gerra garaiko defentsa-lerroarako sarbidea.



Andatzako defentsa-lerroan gakoak izan zirenen topaketa, babesleku parean.



Apirilaren 13ko bisitan erakutsi zuten Andatzako lubakietako bat.



Bisitariak, 1936ko gerra garaiko testuinguruaz argibideak jasotzen.





Ekainaren 28an hasiko dira festak ofizialki, suziria botatzearekin batera.

## Usurbilgo jaiei begirako deialdiak

Jaietarako asko falta da oraindik baina kontu batzuk orain argitu behar dira: egitarauaren diseinu lana nork egingo duen eta txupinazoa nork botako duen.

### Txupinazoa

Santixabelei ekainaren 28an udaletxeko balkoitik hasiera nork eman erabakitzeke herriarren ekarpenak bilduko ditu Jai Batzordeak, aurreko urteen antzera, apirilaren 22tik maiatzaren 24ra arte. Txupinazoa nork eta zergatik jaurti behar duen, proposamenok egiteko bi modu izango dituzue: kultura@usurbil.eus helbidean edo udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Potxoenean jarriko dituzten kutxetan.

### Egitarauaren diseinu lehiaketa

Festen berri emango digun egitaraua diseinatzeke txapelketa ere abiaraziko dute hilaren 22an. Lanak udal erregistroan aurkeztu beharko dira, maiatzaren 24a baino lehen. 500 euroko saria eskuratuko du irabazleak. Oinarrien berri bi-

deotatik jaso dezakezue: usurbilkultura.eus / 943 371 999.

Diseinu lanari dagokionez, ohi bezala, lehenbizi Potxoenean egitarauko testua eskuratu beharko da edo bestela kultura@usurbil.eus helbidean galdegin.

Testu horretan oinarritu beharko da sortze lana, euskaraz, neurri librean. Udalaren logoa erantsi beharko zaio. Lanak paperean eta euskarri digitalean (CD edo pendrive batean, PDF formatuan) aurkeztu beharko dira, bi gutunazaletan. Bietan egilearen izen-

**TXUPINAZORAKO PROPOSAMENAK MAIATZAREN 24A BAINO LEHEN EGIN BEHAR DIRA**

goitia, A edo B gutunazala den eta "Santixabel egitarauaren lehiaketa" adierazi beharko da. Kartazaletan eta B kartazaleko dokumentazioan "izengoitia ez den beste izenik erabiltzen bada identifikatzeko, eta izen horrek parte-hartzailea zein den jakiteko bidea ematen badu, parte hartzaile hori lehiaketatik kanpo geldituko da".

A gutunazalean, "aurkezle-ri buruzko datuak bilduko dira: izen-abizenak edo taldearen izena, IFZ/IFK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa eta hura identifikatzeko behar den beste edozein datu". B gutunazalean, "proposatzen den diseinua joango da, euskarri digitalean eta paperean".

Nahi adina sortze lan aurkeztu daitezke, norbanako gisa, edo taldean eta "taldean aurkeztuz gero, taldekide bat izendatuko da lanaren arduradun". Modu batean edo bestean ordea, lanek aurrez argitaratu gabeak, lehiaketetan parte hartu gabekoa eta originalak izan beharko dute. "Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da".

Jai Batzordeko eta diseinu arloko ezagutza duten bina kideek eta kultur arloko zinegotziak osaturiko epaimahaiak izango du azken hitza. "Erabakia hartzeko orduan, garrantzia handia emango zaio, besteak beste, egitaraua erraz irakurtzeko modukoa izateari".

Lanak udal erregistroan aurkeztu beharko dira, edo bestela helbide honetara postaz bidali: Usurbilgo Udala, Kultura Saila: Joxe Martin Sagardia plaza z.g.; 20170 Usurbil.

### Informazio gehiago:

943 377 199  
kultura@usurbil.eus



## Andatza Eguna badator

Maiatzeko lehen igandean, hamarkada luzeetako ohitura berritzeko aukera izango da.

### Maiatzak 5, igandea

• 9:30 San Estebango plazatik hasita Zirimararen familia plana. "Familia giroan, Andatzako igoyerari emango diogu, ibilbidean zehar zenbait jolas eginez. Behin gora igota ere jolas batzuk egingo ditugu".

• Goizean zehar, pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da Andatzako bordan.

• 12:30 Argazkia Andatzako bordaren parean.

• Antolatzaileak: Ibai-ondo elkarte eta Zirimara.

Babesleak: Saizar Sagardotegia eta Usurbilgo Udala.

## Elhuyar Zientzia Azoka

Gipuzkoako ikastetxeetako 12-18 urte arteko gazteei zuzendurikoa izango da, maiatzaren 4an goiz partean egingo da. "Gazteek garatutako proiektuen azoka da, eta ikerketa eta garapena barrutik bizitzeko aukera ematen die. Elhuyar Zientzia Azokaren helburua da gazteei STEAM bizipenak eskaintzea, komunitate osoaren inplikazioarekin". Hainbat azoka antolatu dituzte, azkena Euskal Herri mailakoa, maiatzaren 22tik 25era Bilbon. Aurretik, Gipuzkoa mailakoa Usurbilen.

**eskura**  
elkadura eta dietetika aholkularitza  
DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
GIZENTASUNA, ELIKADURA  
ETA KOLESTEROL ARAZOAK  
**688 843 696**  
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
Fatxaden estaldurak · Estalkien berritzatzeak  
Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
Igeltseritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**



Iragan larunbatean, Pelaioenearen irekieran parte hartu zuten Kalezarko auzokideak.

# Auzokideek ireki dute oraingoan, Pelaioeneara

Merezitako ongi etorria eman zioten kalezartarrek, aurrerantzean biltzeko egoitza izango duten Pelaioeneari.

Usurbilgo Emakumeen Etxearekin batera, kalezartarren udal ekipamendua kokatuko da Pelaioenearan. Azken lau urteotako lanketaren emaitza dela nabarmendu zuen iragan larunbatean egin zuten irekiera ekitaldian, bilgune hau dinamizatuko duen Belmonte auzo elkartetik. 2020an ekin zioten Pelaioenearen diseinua eta edukia definitzeko Usurbilgo Udalak antolatu eta Elhuyarrek dinamizaturiko parte hartze prozesuari. "Auzotar dezente parte hartu genuen. Ideia eta dinamika ezberdinak izan ziren". Urte-

bete geroago, elkartea lau batzordeetan berregituratzea erabaki zuten. Batetik, lan taldeak ordezkatuak egongo diren zuzendaritza batzordea dute.

## Bizikidetzarako arautegia

Beste hiru taldeei dagokienez, haietako bat hirigintza gaiez arduratzen da. Kalezarren azken urteotan izandako eraldaketaren harira, "ikusten genuen kezka zegoela auzoan", egitasmo guztiok eragin zitzaizketen aldaketak tarteko. Horren aurrean, "taldetxo bat osatu genuen". Egitasmoei buruzko

informazioa biltzeaz gain, ziztuzten kezken zerrenda osatu zuten. Auzoko trafikoa, apartakaleku arazoak, Kaxkoko zoruaren egoera txarra, irisgarritasun arazoak... izan ziren detektatu zituzten arazoetako batzuk. Hauek abiapuntu gisa hartuta, "lanean hasi ginen, irtenbide posibleak aurkitzen, Udalarekin hartuemanetan". Lanketa horren guztiaren emaitza da, egunotan kontopontzen hastekoak diren Belmonte kalea. Horrez gain, "Udalarekin lantzen ari gara, trafikoa erregulatzeko sistema bat". Iragarri dutenez, "auzoari zabalduko zaio beste deialdi bat gai horren inguruan

**BELMONTE:  
"PROIEKTU ASKO  
DAUDE, ZUBI-LANA  
IZANGO DA  
GARRANTZITSUA"**

hitz egiteko, ideia edo iritzi desberdinak entzuteko".

Pelaioeneara bera izango da Belmonte barruko hirugarren lan-taldea. "Proiektu asko daude, zubi-lana izango da garrantzitsua" Emakumeen Etxeko kideekin nahiz Usurbilgo Udalarekin. Bizikidetzara arauak zehazten dituen dekalogo bat osatua dute. Erreserben bidez funtzionatu eta elkarbiziko dira. Laugarren lan taldea urteko ekintzak bideratzeaz arduratuko da. Talde honek antolatu zuen duela hiru urteko herri antzerkia, Gau Beltza...

Auzokideen bizi-kalitatea hobetu, belaunaldiartekotasuna sustatu, kultur ekimenak antolatu, auzoko identitate historikoa landu edota auzokide berriei integrazioa errazteko sortua den bilguneak auzolana izaten segiko du oinarri. Hainbat deialdi iragarri dituzte:

- Apirilaren 30etik aurrera: astearte eta ostegun arratsaldero, auzokideak Pelaioenearan biltzeko deialdia egin dute.
- Maiatzak 4: auzo bazkaria. Salgai jarriko dituzten txartelen zati bat elkartea finantzatzeko izango da.

## Informazio gehiagorako...

- E-posta: belmonteauzoelkartera@gmail.com
- Postontzia Peña Pagola elkartera atarian.
- Whatsapp taldea dute, deialdien berri jaso nahiz herritarren eskaerak plazaratzeko.
- Qr kodeak jarriko dituzte auzoan Pelaioeneari buruzko informazioa jaso nahiz auzoko Whatsapp taldera sartzeko.
- Pelaioenearen berri zabalago eta erreserbak: -usurbil.eus/eu/pelaioeneara -erreserbak.usurbil.eus

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
**943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL**

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra  
  
**693 059 392**  
uraitz@uraitz.com USURBIL





Zubietako "Bat" izeneko etxean, Amaia Arana eta Iñaki del Prim ageri dira proiektuaren egile gisa.

# Zubietako etxe bat, Estatuko arkitektura sariketa baterako sailkatua

Zubietako Irigoien kaleko eraikin bat, Estatuko arkitektura elkargoko kontseilu nagusiak antolatutako aurtengo arkitektura sariketarako hautagaien artean da.

Albiste honi atxikitako irudiko egurrezko eraikin berria, ezaguna izango zaizue zue-tako bati baino gehiagori. Zubietako Irigoien kalean kokatua dago, Araeta parean. Espainiako Arkitektura Elkargoko Kontseilu Nagusiak urtero antolatzen duen arkitektura sariketaren hirugarren ediziorako sailkatu diren 185 hautagaien artean da egun.

Autonomia erkidego ezberdinetan arkitektuen elkargo ofizialek hautaturikoak dira proposamen guztiok. Hego Euskal Herriko arkitektuak biltzen dituenak, Zubietako bizileku hau aurkeztu du sariketarako hautagai gisa; "Bat" izeneko etxea, "familia bakarreko egurrezko etxebizitza". Amaia Arana eta Iñaki

del Prim ageri dira proiektu honen egile gisa.

## Finalera bidean

Epaimahaiak izango du orain azken hitza. 185 dira proposamenak (497 proposamen jaso ditu antolakuntzak), haietatik 14 Hego Euskal Herrikoak. Askotariko arkitektura lanak dira deialdi honetara aurkezturikoak; Zubietakoa bezalako eraikinak, hirigintza planak, dibulgaziokoak... Hautaturiko proposamenen izaera berri-tzailea eta kalitatea gorai-patu dute, baita norbanakoen zein kolektiboen ongizatean duten eragin positiboa, "gure ondarearen indartze kulturala eta ingurumen zein lurralde orekaren berreskuratzea" sustatzen dutela diote. Maiatzean, epaimahaiak bilduko da eta

finalerako sailkatuko direnak hautatuko dituzte. Irabazleak, ekainaren 20an jakinaraziko dituzte ekitaldi batean.

## Zubietako eraikinaz

Irigoien kaleko eraikinaz honakoa diote arkitektoek. "Eraikinak jasangarritasun baloreei eta osasun zein Bauhaus Berriri erantzuten dio". Egitura, azpiegitura eta itxiturarako egurra baliatu zuten "isolatzaile gisa zuntzezko egurra".

**"ZUBIETAKO IRIGOIEN KALEKO ERAIKINAK JASANGARRITASUN BALOREEI ERANTZUTEN DIO"**

"Passivhaus" ziurtagiria du, energia berriztagarriak erabiltzen ditu eta "errendimendu energetiko optimoa" du. Egurrezko elementuak berrerabili daitezkeenez, "drastikoki gutxitu daitezke eraikinaren bizitza erabilgarriaren amaieransordatezkeen hondakinak".

Ingurumenarekin armonian bizi dela nabarmentzen dute, hein handi batean materialei esker. Izan ere, "espazioaren konfigurazaila egitura" gisa egurrak eskaintzen duen edertasuna azpimarratzen dute, duen protagonismo erabatekoa.

## Mozioren balantzea

Hilabeteotan Hego Euskal Herriko erakundeetan aurkezturiko mozioren balantzea plazaratu dute Gipuzkoako Pentsiodunek. Bi eskakizun biltzen zituen testuak: batetik, "Eusko Jaur-laritzari eta Eusko Legebiltzarrari eskatzea 1080 eurora arte osa dezatela gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarillera arteko atzeraeraginezko ondorioekin"; bigarrenek, "udalbatzatan eta Batzar Nagusietan onaturiko akordioa helaraztea Eusko Jaur-laritzari, Eusko Legebiltzarrari eta Nafarroaren kasuan, Nafar Parlamentuari".

Gipuzkoako pentsiodunen mugimenduaren esanetan, "Gipuzkoan udal guztietan aurkeztu da, 88tan hain zuzen. Horietako %80an onartu da, 70 udaltan (tartean Usurbilen), eta 14tan ez da onartu".



2019an pilota profesionalako epaile izateari utzi zion eta bolatokian jolasten hasi zen berriro.

# “Norberak ikasten du praktikarekin teknika hobetzen”

**MIKEL ARROIO** BOLA JOKALARIA

Bola jokoan dihardu Mikel Arroio usurbildarrak azken urteetan. Pilotako epaile profesional izateari utzi eta bolatokiak harrapatua du egun. Gipuzkoako Koparen hirugarren jardunaldia igande honetan jokatuko da Usurbilen eta aitzakia hori baliatu dugu berarekin elkartzeko.

**Bolotan ibiltzen zara. Nondik datorkizu kirol jarduera honekiko lotura? Zure etxean izan al da kirol hau praktikatzeko joera ala lehena zara?**

12-13 urterekin hasi nintzen. Aita bolotan ibiltzen zen, eta Lasarten bizi ginen garai hartan. Lasarten Mitxelinen ibiltzen ginen askotan, eta txapelketetan parte hartzen hasi nintzen. Nahiko ondo moldatzen nintzen eta gerora, pilotako epaile profesional egin nintzenean, 16-18 urte utzi egin nituen boloak. 2019an pilota profesionalen epaile izateari utzi nion, eta duela pare bat urte bolotan ibiltzen den batek deitu zidan

bikoterik gabe zegoela eta, ea elkarrekin arituko ginen. Nagiak harrapatu ninduen, baina baiezkoa eman eta Gipuzkoako txapelketan hirugarren egin genuen biok. Bikotea Aiakoa zen. Ez zen punta-puntan ibiltzen diren horietakoa ere, baina oso emaitza ona lortu genuen. Bakarkakoan ere sailkapenean ondo aritu nintzen eta Euskadiko txapelketarako sailkatzea lortu nuen. Joan zen urtean, beste bikote bat aurkitu nuen eta oso ondo harekin ere. Punta-puntan ibiltzen diren horietako batek deitu zidan, bikoterik gabe nengoen aurreko urtekoak beste bikote

bat bilatu zuelako, eta bakar-ka aritzeko asmoa baino ez nuen. Aukera ederra suertatu zitzaidan bikote berriarekin eta txapeldun geratu ginen. Taldean ere harekin eta punta-puntako beste batzuekin aritzen naiz eta oso maila ona lortzen ari gara.

**"2019AN PILOTAKO EPAILE IZATEARI UTZI NION ETA DUELA BI URTE BOLA JOKOAN HASI NINTZEN"**

**Astero, zenbatetan entrenatzen duzu, batz bestea?**

Astero entrenatzen dugu. Botaketak igandetan izaten dira, eta normalean, bolatokia probatzeko aukera izaten dugu ostegunetan. Hala egin ohi dugu, igandean botatzea tokatzen den lekuan entrenatuta. Bestela, Ereñozura joaten gara gure kabuz entrenatzera. Azken hiru urte hauetan hartu dut martxa hau.

**Txapelketak noiz izaten dira?**

Gipuzkoako Txapelketan esaterako, banakoa eta binakakoa izaten dira. Sailkapen fase bat egoten da zortzi astekoa eta hogeit onenek lortzen dute sailkapena. Finala, aurten, Lasarten izango da. Urrian hasiko da taldekakoa. Hamalau talde aritu gara denboraldi honetan, Goierriatik 7 eta kostaldetik beste 7. Azaro bukaeran izan zen finala, Seguran, eta emaitza onak lortu genituen. Pena finalean galdu izana. Bigarren egin genuen. Udan, berriz, herriko festetan ibiltzen gara festarik festa bolotan. Neska ugari hasi da kirol honetan azken aldira. Binakakoan gu 22 bikote ginen eta nesketan 6 edo 7 bikote. Goizeko bederatzietan hasten dira txapelketak eta ez dago ordena konkreturik. Beraz, goizeko bederatzietarako joaten gara geure jaurtiketak egin eta eguna aprobetxatzeko. Askotan, goizeko zortzietarako joanda ere, eguerdiko hamabiak arte ez dugu botatzeko aukerarik izaten. Denok estrategia bera erabiltzen dugu.

**Nazioarteko txapelketak ere egiten al dira? Tokatu zaizu inoiz lehiatzera kanpora joatea?**

Modalitate pila bat daude. Guk modalitate jakin bat daukagu, baina Euskadiko txapelketetan Bizkaia eta Arabakoan aurka aritzen gara. Haiek beste modalitate batean jokatzen dute. Bizkaitar eta arabarrena oso antzekoa da, ez da gauza bera, baina gurearekin alderatuta gertuago daude elkarrengandik.



→ Gipuzkoaren barnean ere modalitate ezberdinak daude. Boloen tamaina aldatzen da, pistaren luzera eta arauak aldatzen dira. Euskadikoa Gipuzkoan tokatzen denean, hori aprobetxatu behar.

### Lehiakortasun handia dago kirol honetan ala lagun giroan aritzen zarete?

Oso giro sanoa daukagula esango nuke. Txapelketa garrantzitsuetan bakoitzak bereari begiratzen dio, normala den bezala. Aian irabazitako txapelketan, adibidez, estrategia lan ona egin genuen. Finalurrekoetan bola handiarekin aritu ginen eta horretara ohitu ginen. Finalean, bakarrak izan ginen bola arina hautatu zutenak. Bolak 7 eta 9 kilokoak izaten dira. Guk 7koarekin bota genuen, eta gainontzekoak 9koarekin. Arriskatu egin genuen eta horrek eman zigun garaipena: bola aldaketak. Finalerdietan oso emaitza onak lortuta, zertarako aldatu bola? Bada, guk estrategia hori erabili genuen eta ondo atera zitzaigun. Ez da beti asmatzen, baina guri kasu hartan funtzionatu zigun.

### Ze aholku emango zenioke bolotan hasteko tentazioa izan dezakeen gazte bati?

Gazte askorik ez dago orain. Dauden gutxi horiek gurasoak bolotan ibiltzen direlako, bide hori jarraitu dutenak dira. Txikitatik egunpasak egitera ohituta daude, eta eurak ere botatzen hasten dira. Igandetan izaten dira tiradak, eta gazteentzat igande goizetan urrun joan beharra ez da gustagarria. Zaila iruditzen zait gazteak animatzea. Adin batetik aurrera ez da ia inor animatzen.

### Inoiz aritu al zara Usurbilen txapelketaren batean edo erakus-taldiren batean?

Gipuzkoako Kopa jokoan da eta hirugarren jardunaldia igande honetan jokatu da Usurbilen. Azken urteetan urtero edo ia urtero lortu dugu



Mikel Arroio usurbildarrak eta Jose Mari Etxebeste villabonarrak bigarren urtez jarraian nagusitu dira Gipuzkoako Txapelketan. Irudia otsailekoa da.

igande bateko tiradak Usurbilen egitea. Bolatokia txukuntzen dugu eguna iritsi baino lehen eta nahi duenak aukera izaten du bolotan ibiltzeko. Santixabeletan ere urtero prestatzen dugu bolatokia txapelketa txiki baten bueltan.

### Zure jardueran, entrenzailerik ba al da?

Lasarteko bolatokia gizon zahar batek eramaten zuen, eta hark erakutsi zidan niri nola bota. Aita Lasarteko taldean aritzen zen eta harekin joaten nintzen, ez zidaten uzten jokatzeko. Gizon hark erakusten zidan nola bota aitaren taldekideak etorri aurretik. 13 ur-

## "SANTIXABELETAN URTERO PRESTATZEN DUGU BOLATOKIA TXAPELKETA TXIKI BATEN BUELTAN"

terekin edo, hasi nintzen. Norberak ikasten du praktiarekin teknikak hobetzen eta pistaren berezitasunetara egokitzen. Pista guztiak ezberdinak dira, eta etxekoek erabakitzen dute bolatokia nola atondu. Hor bakoitzaren strategiak ezagutzea garrantzitsua izaten da.

### Kirol honetan badaude profesionalak?

Ez dago kirol honetan profesionalik. Txapelketak irabazita dirutxo bat irabaz daiteke, baina ez du bizitzeko ematen, ezta gutxiagorik ere.

### Urte askoan gehiago jarraituko duzu?

Orain oso gustura nabil, baina igande goizetan nagia ere sartzen zait edo lana ere izaten dut batzuetan. Ez da oso erraza izaten beti, baina gustura ibiltzen naiz. Emaitza onek ere aurrera egiteko gogoia ematen dute. Beraz, taldekideek animatzen nauten bitartean jarraituko dut.



Mikel Arroio.

## Laburrean

### Zenbaki bat:

1.

### Kolore bat:

Urdina.

### Miresten duzun kirolari bat:

Luis Miguel Arconada.

### Usurbilgoa ez den bolatoki bat hauta ezazu:

Zeraingo bolatokia.

### Ikusi duzun azken pelikula edo telesaila:

Oppenheimer.

### Liburu bat aholkatuko diguzu?

Biografia txikiak.

### Zein da zure abestirik gogokoena?

Zea Mays taldearen *Negua joan da ta*.

### Facebook, Twitter, Instagram, TikTok, Twitch... Zein da gehien jarraitzen duzu sare soziala?

Instagram eta Facebook.

### Usurbilgo txoko bat aukera ezazu.

Frontoi ingurua eta Zubietako plaza.

### Santixabelak ala Sargardo Eguna?

Santixabelak.

### Oporretarako toki bat.

Cádiz.

# Salvadortarren “Familia artean” kontzertua

Olatz eta Iñaki Salvadorren “Familia artean” emanaldia antolatuko dute Jexux Artze Kultur Elkartek eta Usurbilgo Udalak maiatzaren 3an, 19:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin edo usurbilkultura.eus plataforman eskura daitezke, 8 eurotan.

“Familia-topaketa berezia da, elkartzen dituen lotura dela eta, baina, gainera, eta hortik harago, belaunaldien arteko benetako hurbilketa interesgarria da arlo artistikoan eta musikalean”, kontzertuaren antolatzaileek aditzera eman dutenez. “Funtsean austeritate eta hunkigarrian sinpletasunetik eta benetakotasunetik murgiltzea bilatzen duen lan baten aurrean gaudete”.

Bertan, “Olatz Salvadorren errepertorioa bizkarrezurra duen kontzertua taularitzen dute. Argi eta garbi intimistadun formatu batean, indarra eta sendotasuna behar denean, elkarrekin aztertzen dute beren musika-unibertsioen arteko fusioa”.

Egun seinalatuan egingo da kontzertua, hain zuzen, Jexux Artze zendu zela 21 urte beteiko direnean. Urte garai honetan antolatzen zituen



Iñaki Salvador eta bere iloba Olatz Salvador Sutegin airtuko dira maiatzaren 3an.

bere garaian aipatu kultur elkarteak udaberri parteko ekitaldiak edota azken urteotako Txalaparta Eguna.

**Txalaparta Eguna, udazkenean** Maiatzean herrian bertan izaten den kultur eskaintza oparora tarteko, nahiz txalapartaren bueltan asteotan Euskal Herrian antolatu izan ohi diren hitzorduengatik, aurtengoan, Jexux Artze Kultur Elkartek urrira atzeratu

du 2024ko Txalaparta Eguna. Aurrerago eskainiko dituzte ziklo horri buruzko xehetasunak. Halere, maiatzaren 3ko egun seinalatua ez zuten oharkabean igarotzerik nahi. Jexux Artze zendu zeneko urtemuga egun honetan eta tradizionalki maiatzean antolatu izan dituzten ekimenen testuinguru horretan iragarri dute Udalarekin lankidetzan antolaturiko Olatz eta Iñaki Salvadorren kontzertua.

**Urtebetetzean** abesten dugun kantu ezaguna Kaxianarena da, eta leloa buruz dakizu:

**Zorionak** zure urtebetzean, Zorionak ta urte askotarako, Zorionak belarrik tiratzean, Zorionak ta musu bat zuretako.

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia eta abestiaren lehen ahapaldia azalduko zaizu. Horretarako, erabili beheko alfabetoa.

**HIZKI-MARRAZI ALFABETOA**

**ZORIONAK!**

Hau da urtebetetze festa oparoa! Hemen gauza asko dago jateko! Irudi honen eta alboko bere islaren artean dauden aldeak aurkitu behar dituzu. Hamaika dira guztira.

**3** Osagai guztiak erabiliz gero, hiru pastel egin daitezke

**Pastela**

**SUDOKU**

Bete itzazu sudoko honen hutsuneak PASTEL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (P, A, S, T, E eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta arean bakoitzeko.

Maripurtzili atsegin zaien bizkotxoak honoko osagai hauek ditu: hiru arrautza, ontzi bat irin, ontzi bat gozoki, ontzi bat alio, zorrotxo bat legamia, pota bat jogurt, limoi bat eta txokolatetzko krema. Zenbat bizkotxo aterako zaizkio?

**Labirintoa**

Zenbat urte bete ditu Pellozikirik?

**ASKARI OPAROA**

**DOMINOAN**

Urtebetzeetarako oso proposa den domino honek sei irudi ditu: banderatzokak, kandela, tarta zatia, puxika, oparia eta zorion txartela. Bete lauki zuria, bakoitzari degokion irudia marraztuz.



## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## SALGAI

Pisua salgai Aginagan, Elutx kalean. 3 logela, 2 bainugela eta sukaldea. Garaje marra eta trastelekua barne. 685711912.

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Irargaki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Usurbil edo inguruetan, garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz, behala hasteko moduan 74745055

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein interna aritzeko aukerarekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzaileria behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurlaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 artean, 632157186

## BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aukia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Intesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

## Pilota partidak

## Apirilak 26, ostirala

Udaberri txapelketa 4 1/2

- Kadeteak 3. Mailan:

-Indakoetxea (Pagazpe)

- Aizpuru (Behar zana)

- Kadeteak 1. Mailan:

Alejo (Pagazpe) - Ataun (Izagirre)

- Kadeteak 1. Mailan:

Pagola (Pagola) - Lapke (Perez)

## HILDAKOAK



**Manuel Redruello Fernandez**  
Apirilaren 21ean  
hil zen, 82 urterekin

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 25 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21

Ostirala, 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52

Larunbata, 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

Igandea, 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

Astelehena, 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51

Asteartea, 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

Asteazkena, 01 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74

Osteguna, 02 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67

Ostirala, 03 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49

Larunbata, 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67

Igandea, 05 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## Eskubaloia Oiardon

## Apirilak 27, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak:

Usurbil KE B-Tolosa CF

- 11:15 Infantil neskak:

Usurbil KE B-Saieko

- 16:00 Kadete neskak:

Usurbil KE-Munttarpe

## Apirilak 28, igandea

- 10:00 Alebin eta benjaminen errendimenduko entrenamendua.

- 12:00 Infantil neskak:

Usurbil KE A-Bidasoa Irun

## Futbol partidak

## Apirilak 27, larunbata

## Haranen:

- 9:00 Infantil mutilak:

Usurbil FT B-Hernani CD

- 12:00 Kadete neskek:

Usurbil FT-Intxaurdi KE B

## Haranetik kanpo:

- 9:00 Infantil mutilak, Donostian:

Internacional CD-Usurbil FT

- 15:30 Jubenilak, Irunen:

Mariño CD B-Usurbil FT B

- 18:15 Preferente mutilak, Urnietan:

Urnietan KE-Usurbil FT

- 19:45 Erregionalak, Irunen:

Landetxa KT-Usurbil FT

## Apirilak 28, igandea

## Haranen:

- 10:00 Kadete neskek:

Usurbil FT B-Hondarribia FK

## Haranetik kanpo:

- 12:15 Infantil neskek, Donostian:

Sporting de Herrera-Usurbil FT

- 15:15 Preferente jubenilak,

Donostiako Matigoxotegin:

Kostkas KE B-Usurbil FT

- 17:00 Preferente neskek:

Hondarribia FK-Usurbil FT

- 17:30 Kadete mutilak, Antzuolan:

Antzuola KE-Usurbil FT

## Futbol zozketak

1. saria: 8538 (lau pertsonentzako otordua Artzabal jatetxean).

2. saria: 6194 (lau pertsonentzako otordua Patri jatetxean).

3. saria: 0661 (lau pertsonentzako otordua Txiriboga tabernan).

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 26

### USURBIL Sareren elkarretaratzea

20:00 Mikel Laboa plazan.

## LARUNBATA 27

### USURBIL Kantu-jira

12:00 Mikel Laboa plazan.

### USURBIL Sortalderen informazio mahaia

Sortaldek bazkietza berriak bideratu eta informazioa helarazteko informazio mahaia jarriko du.

12:00-14:00 Sutegin.

### USURBIL XII. Dantza Eguna

Egun osoko jarduna.

## IGANDEA 28

### USURBIL Sortalderen informazio mahaia

Sortaldek bazkietza berriak bideratu eta informazioa helarazteko informazio mahaia jarriko du.

12:00-14:00 Sutegin.

## ASTEARTEA 30

### USURBIL Yolanda Arrietaren "Gutunak birramamari" liburua aurkezpena

Nori zuzendua: 8-10 urteko haurrak eta euren gurasoak. Izen-ematea: Sutegi udal liburutegian.

18:00 Sutegin.



Herritar orok parte hartu ahalko du asteartero egingo diren paseoetan.

## Tipi-tapa, herrikideak paseoan

Bidean da "Usurbil, goazen kalera" ekimena. Sendotuta itzuli zen iragan astean. Izan ere, eragile gehiagoren lan-kidetzaz sustatuko dute egitasmoa aurrerantzean, Usurbilgo herri eta auzo ezberdinetan gainera. Eta aldaketa nabarmenena; denontzat izango da. Herritar orok parte hartu ahalko du hemendik aurrera, asteartero egingo diren paseoetan.

Albiste honi atxikitako irudikoak hilaren 16an, ekimen honen itzulerako estreinako ibilaldian parte hartu zutenak dituzue. Aterkiak eskuetan, gogotsu ekin zioten Mikel Laboa plazatik gorantz abiatu zuten saioari. Kalezarko itzulia egin zuten.

Usurbilgo auzo eta herri bakoitzeko eragileak izango dira antolaketa lanetan jardungo dutenak astero. Iragan astean, Kaxkoan barrena eginitako ordubete pasatxoko ibi-

laldian bidelagun Udarregi ikastola eta Gure Pakea elkar-tea izan zituzten. Ekaina amaierara arteko ibilaldien egutegia finkatu dute dagoeneko.

### "Usurbil, goazen kalera"

- Asteartero, 10:00-11:30.
- Abiapuntua eta helmuga: tokian tokiko frontoia.
- Iraupena: momentuz, ekaina amaiera arte, irailean segida eman asmo diote.
- Egutegia: hilaren 30an Usurbilgo Kaxkoan, maiatzaren 7an Santuenean, maiatzaren 14an Usurbilgo Kaxkoan, maiatzaren 21ean Usurbilgo Kaxkoan (ekintza berezia), ekainaren 4an Zubietan, ekainaren 18an Usurbilgo Kaxkoan.
- Antolatzaileak: Gure Pakea, Gure Elkar-tea eta Arrate elkar-teak, Udarregi ikastola, Aginagako eta Zubietako eskolak, Usurbilgo Udala, Oinarrizko Lanbide Heziketa.

## "Zumetaren Usurbil" erakusketa

- Astelehenetan: 17:00-20:00.
- Asteartetik ostiralera: 11:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Larunbatak, igandeak: 11:30-14:00 / 17:00-20:00.

## Ixabel Agirresarobe Txokoalden

Maiatzaren 4an, Ixabel Agirresarobe Txokoaldeko ibilbideko "istorio miste-riotsuak" kontatuko dizkie haurrei. Txokoargin, 17:00etan.

## Kontzertua Aginagan

Loita Amada galizarrak, Rukula eta Zaparra arituko dira Aginagako Eliza Zaharrean. Maiatzaren 4an larunbata, 22:30etik aurrera. Emanaldi honetarako sarrerak usurbilkultura.eus plataforman edo Arrate tabernan eskuratu ahalko dituzue.

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK

Instagram Facebook

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com · www.inakiturgintza.com  
600 024 825





*amaren egunerako,  
aukera zabala!*



**URTINEA**

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55



Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



# udajolas

2024  
udaleku irekiak

## IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

Udajolas Usurbilgo 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzendua dago. Uztailaren 3an hasi eta 30ean amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30. Ostegunetan irteerak egingo dira eta 16:30ean bukatuko dira.

Ordainketa LABORAL KUTXako kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da

UDAJOLAS eta HAURRAREN IZEN-ABIZENAK adieraztea:

ES28 3035 0140 34 1400025811  
(Usurbilgo Udaleko kontua)

### Izena emateko epea:

apirilak 19tik apirilak 29ra (biak barne)

Kuota: 105 € Famili Ugaria: 90 €

Onartutako hobia	KUOTA arrunta hobiairekin	Familia Ugariaren KUOTA hobiairekin
% 50	52,50 €	45 €
% 75	26,25 €	22,5 €
% 90	10,50 €	9 €

Izen-ematea egiteko lotura:

<https://labur.eus/b9fG7>



### Aurkeztu beharrekoa:

(elkartea@noava.eus helbidera bidali)

·Ordainketa-agiria

- Gizarte segurantzako txartelaren kopia.
- Familia Ugariaren kasuan: Familia Ugariaren txartela edo Familia Liburuaren kopia
- Hobariaren kasuan, udalak aurrez emandako ziurtagiria.

**OHARRA:** Apirilak 29 da izena emateko azken eguna. Epez kanpoko izen-ematerik ez da onartuko. Informazio gehiago [elkartea@noava.eus](mailto:elkartea@noava.eus) helbidean edo 688807336 telefonoan. Guraso-bilera, ekainaren 18an (asteartea) Sutegiko auditoriumean, 17:00etan.

**noava**

